



INGENIARITZA BIOMEDIKOKO GRADUA PRESTAKUNTZA DUALERAKO HAUTAKETA PROZEDURA

Kontuan hartu beharreko datak:

- Eskaera egiteko epea: uztailean hasi eta irailean amaitu.
- Hautaketa prozesua: iraila eta urria bitartean.
- Azaroan eta abenduan hautatutakoen dokumentazioa izapidetuko da.
- Prestakuntza dualeko ibilbidea urtarrilean hasiko da

Eskabideak aurkezteko epea irekitzeko iragarkia eta dagozkion inprimakiak (enpresek eskainitako plazei buruzko informazioa jasotzen dutenak) posta elektronikoz bidaliko zaizkie parte har dezaketen graduiko ikasle guztiei.

Ibilbide duala egiteko baldintzak:

1. Gaindituta izatea lehengo eta bigarren mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.
2. Matrikulatuta egotea hirugarren mailan gainditu gabeko irakasgai guztietan.

Bilboko Ingeniaritza Eskolak ikasleak hautatzeko prozesua

Hautaketa irizpideak: Eskolak egiaztatuko du ikasleek baldintzak betetzen dituztela eta lehentasun hurrenkera zehaztuko du espediente akademikoa oinarri hartuta.

Eskaera egiteko epea amaitu eta gehienez ere astebeteko epean, aurrez hautatutako eta baztertutako ikasle eskatzailearen behin-behineko zerrenda jakinaraziko da. Baztertutako pertsonen hiru egun balioduneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarotakoan, aurrehautatutako ikasleen behin betiko zerrenda argitaratuko da, espediente akademikoaren notarekin batera, eta bost egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko. Epe hori igarotakoan, aurrehautatutako ikasleen behin betiko zerrenda argitaratuko da, a notarekin batera.



Enpresak ikasleak hautatzeko prozesua

Aurrez hautatutako ikasleen zerrendaren eta haien lehentasunen arabera, enpresa bakoitzak ikaslea hautatuko du, eta hautatutako pertsonen zerrenda ordenatua egingo du. Enpresak, egoki iritziz gero, ibilbide dualaren eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango dira hautaketa egin aurretik. Prozesu horrek bi eta hiru aste arteko iraupena izango du, gutxi gorabehera.

Ikasleak enpresei esleitzea

Eskola, enpresa bakoitzak hautatutako ikasleen zerrenda eta aurre-hautaketako nota kontuan hartuta, ikasleekin harremanetan jarriko da, haien lehentasunak kontuan hartuta, egonaldia zein enpresatan egingo duten erabaki dezaten. Horrela, ikasle-enpresa binomioen zerrenda bat lortuko da ibilbidea hasteko.

Harremanetarako: dual.eib@ehu.eus